

## Larunbatean, hilak 13, graduako ate irekiak egingo dira Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusetan

2016/02/08

Larunbatean, hilak 13, **goizeko 11:00etan** hasita, graduako ate irekiak egingo dira Aretxabaletako eta Eskoriatzako campusetan. Ate ireki saioetan hurrengo graduei buruz informazio zehatza eskainiko da: Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Ikus-entzunezko komunikazioa.

Ate ireki ekitaldietan parte hartzeko derrigorrezkoa da alde zuzenetik izena emanda egotea Interneten. Dagoeneko itxita dago larunbateko saioetarako izen ematea, baina, ikasturtean zehar egongo dira aukera gehiago graduen gainean informazioa jasotzeko, hau zuzen ere hurrengo datetan:

- **Martxoak 12** (larunbata). 11:00. Eskoriatza eta Aretxabaleta.
- **Apirilak 21** (osteguna). 18:00. Eskoriatza eta Aretxabaleta.
- **Maiatzak 14** (larunbata). 11:00. Eskoriatza eta Aretxabaleta.

Web orri honetan eman behar da izena ate irekietan:

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

Larunbatean azalduko diren graduak:

### ESKORIATZAKO CAMPUSEAN

- GRADUA Haur hezkuntza
  - Haur Hezkuntza Aipamena
  - Atzerriko Hizkuntza Aipamena
- GRADUA Lehen hezkuntza
  - Lehen Hezkuntza Aipamena
  - Hezkuntza Berezia Aipamena
  - Heziketa Fisikoa Aipamena
  - Atzerriko Hizkuntza Aipamena

### ARETXABALETAKO CAMPUSEAN

- GRADUA Ikus-entzunezko komunikazioa



Larunbateko ate irekiak 11:00etan hasiko dira.